

# euskararen berripapera



# 199

## HPSk **Europako Kartaz** egindako txostena baloratu du

**Europako Kontseiluak Elebide sortu izana nabarmendu du eta "Ertzaintzan eta Osakidetzan euskararen normalizazioa sustatzen jarraitzera" animatu du.**



Europako hizkuntzen mapa.

Eskualdeko Hizkuntzen edo Hizkuntza Gutxituen Europako Karta Espainiako estatuan zenbateraino betetzen den egiaztatzeko bigarren ebaluazioaren txostena (lehen ebaluazioaren txostena 2005 urtean egin zen) ezagutarazi da. Europako Karta 1992an sinatu eta 2001ean berretsi

zuen Espainiako Gobernuak. Espainiaren kasuan, Kartaren edukiak bete daitezten ardura, praktikan eta neurri handi batean, autonomia-erkidegoek hartzen duten arren, txostena egin duen Adituen Batzordeak gogorazten du Espainiako Gobernuak dela, Karta bete dadin erantzukizun orokorra duena.

Adituen Batzordeak Kataluniako, Galiziako eta Euskadiko autonomia-erkidegoak goraiatu ditu, beren hizkuntza propioak biziberritzeko eta normalizatzeko abian dituzten politika egituratuengatik eta hizkuntza-politikaren esparruan esperientziak elkarrekin trukatzeko hiru urteko lankidetzaren hitzarmena sinatu izanagatik.

Honatx, besteak beste, euskarak EAEn duen egoerari buruz esandakoak:

- HPSk 2005-2009 legealdirako begiz jotako neurriak garatu izana azpimarratu du, **Elebide** zerbitzuaren (Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua) sorrera azpimarratuz.
- **Osakidetzak** eta **Ertzaintzak** jasotako kexuek kezkatu egin dituzte Batzordeko kideak, "erakunde-ko pertsonalak ez duelako euskararen behar beste-ko ezagupena". Hala ere, goraiatzen ditu bi espa-

rrotako egoera hobetzeko egindako ahaleginak eta, azkenik, bide horretan jarraitzera animatzen ditu.

- Europako Kontseiluaren aurreko txostenak gogorazten zien euskal erakundeei arlo jakin batzuetako legeria garatu behar zuela. Horri erantzunez, adibidez, **Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen** Estatu-tuari buruzko 6/2003 Legea garatzeko 123/2008 Dekretua onartu zuen Eusko Jaurlaritzak.
- Europako Kontseiluaren lehenengo txostenak iradokitzen zuen D ereduaren eskaintza EAE osoan eta hiru **heziketa** mailetan bermatzea. Orain, Adituen Batzordeak ontzat ematen ditu egin diren aurrerapenak.
- **Euskarazko hedabide**entzako diru-laguntzetan 2005-2008an izandako gehikuntza garrantzitsua (% 51) azpimarratzen du oro har eta hedabide elektronikoetan bereziki (% 119).
- Hizkuntza bereko lurraldeen artean **lankidetzaren** sustatzea gomendatu zuen aurreko txostenean. Poza adierazi du Adituen Batzordeak Nafarroarekin emari handiko informazio trukea dagoelako orain eta positiboki baloratu du Eusko Jaurlaritzaren eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoaren arteko lankidetzaren hitzarmena.

### Defizitak Estatuko administrazioan

Adituen Batzordeak defizitak aurkitu ditu bereziki justizian eta titularitate estataleko hedabideetan. Azken batean, Adituen Batzordearen txostenak dioten moduan, Estatuak neurri egokiak hartu behar ditu gaztelaniaz besteko hizkuntza ofizialak ere erabili ahal izateko bere instituzioetan, justizia administrazioan, sozietate estataletan eta zerbitzu publikoen enpresetan eta estatuaren edo edozein ente publikoren mendeko hedabideetan ●

# HPSk lau urtetan % 61 igo ditu euskararentzako diru-laguntzak

2009ko diru-laguntza deialdi orokorraren bidez 13.100.000 euro banatuko dira bost laguntza-lerrotan banatuta: Euskalgintza, Hedabideak, IKT, EBPN eta Lanhitz.

Urtea hasi ahala, Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikako sailburuordeak eta HPSko zuzendaritza osoak 2009. urterako diru-laguntza deialdia aurkeztu dute. Urtarrilaren hasieran egindako aurkezpenean, Baztarrikak abenduaren 31n ETAK EITBren Bilboko egoitzan jarritako bonba-autoa ekarri zuen gogora eta atentatua gaitzes-teaz gain, elkartasuna adierazi zien ETAREN biktima izan diren EITBko langile eta zuzendaritzari eta baita kalteak izan zituzten beste hedabideei ere.

Diru-laguntzen hariari helduta, Baztarrikak azpimarratu zuen legegintzaldiaren hasieran hartu zuten konpromisoa bete dutela bigarren urtez. Izan ere, HPSk hitz eman zuen diru-laguntzen deialdia urtea hasi aurretik argitaratuko zela eta diru-laguntzak jakinarazita egongo zirela urtearen lehen seihilekoan.

## Bost laguntza-lerroak

13.100.000 euro horien bidez bi helburu lortu nahi ditu HPSk. Batetik, eguneroko bizitzan eta jardunean euskararen erabilera bultzatzea, sendotzea eta handitzea. Bestetik, euskararen normalizazioan ekimen sozialaren jarduera bultzatzea (elkartek, enpresak...) eta herri-erakunde eta gizarte eragileen arteko lankidetzaren sendotzea.

Laguntza-lerroak ondokoak dira:

- **Euskalgintza.** Laguntzen jasotzaileak dira euskararen erabilera gizartearen oro har sustatzeko egitasmoak bultzatzen dituzten erakunde pribatuak. Lerro honen helburua da euskararen erabilera sustatzeko ekimenak diruz laguntzea. 2008an 188 egitasmok eta 84 erakundek jaso zituzten diru-laguntzak.
- **Hedabideak.** Jasotzaileak dira hedabideen jabe diren erakunde pribatuak. Helburua da euskarazko hedabideak sendotzea eta, oro har, euskararen presentzia indartzea hedabideetan. 2008an 105 proiektu lagundu ziren diruz.


- **IKT.** Teknologia berrietan euskarazko baliabideak eta aplikazioak garatu eta euskararen presentzia Interneten indartzen duten erakunde pribatuak dira jasotzaileak. 2008ko diru-laguntzen bidez 123 proiektu eta 85 erakunde onuradun izan ziren.
- **Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN).** Jasotzaileak udalak eta udal erakundeak dira. 2009rako helburua berriz, urte amaieran 155 udalek EBPN onartua izatea, legegintzaldiaren hasieran baino 60 gehiago. Iaz 109 udalek jaso zuten diru-laguntza.
- **Lanhitz.** Jasotzaileak EAeko enpresa pribatuak eta zuzenbide publikoko erakundeak dira. Euskararen erabilera plana lehenengo aldiz egitea eta 2009ko kudeaketa plana egitea izango dira helburuak. Iaz 175 enpresa eta 40.610 langile izan ziren onuradun.

Diru-laguntza orokor hauez gain, beste hainbat laguntza ere emango dira 2009an:

- Hitzarmenak eta diru-laguntza zuzenak proiektu berezietarako: 4.100.000 euro.
- Unibertsitateekin hitzarmenak *Lektore programa* sendotzeko: 355.500 euro.
- 123/2008 Dekretuaren aplikazio-eremuko entitateek aipatutako Dekretuak kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak bermatze aldera ezartzen dituen hizkuntza-betebeharretara egokitzeko diru-laguntzak: 600.000 euro.
- HABEren diru-laguntzak helduen euskalduntze eta alfabetatzerako: 35.458.821 euro ●

Orotara, 53.614.321 euroko diru-laguntzak emango dira 2009an euskara sustatzeko.

## Euskararen erabilera bultzatzeko 2009ko diru-laguntzak



2005eko deialdiarekin alderatuta, legegintzaldiko azken deialdiko laguntza-lerro guztietan eman da, hazkuntza: sekulakoa IKTn eta Lanhitzen; nabarmena Hedabideetan eta Euskalgintzan; eta apalagoa EBPNn. Guztira, % 61 igo dira diru-laguntzak legegintzaldi honetan.



Colin H. Williams

## Elebitasunaren arazoak eta erronkak Galesen

Galeseko gizartea elebidun bihurtzea, edo behintzat elebidun trebeak ugaritzea, hezkuntza-sistemari esker izan da. Galeseko hezkuntza elebidunaren lorpenak ongi dokumentatuta daude. Ez dira hainbeste aztertu eta ebaluatu, ordea, gizartean, komunitatean, ekonomian eta burokratzian galesa sustatzeko egin diren beste ekimenak. Edozein hizkuntzatan harreman garbia dago trebetasunaren eta gaitasunaren artean, baina ez dago hain argi ea historikoki zapal dutako hizkuntzak –adibidez, euskara edo galesa–, normal erabiltzen hasten diren erabiltzeko aukerak eman ahala, hau da, herritarrek hizkuntza erabiltzeko aukera duenean zerbitzu publikoetan edo komunitateko edo aisialdiko jardueretan.

Colin H. Williams-ek idatzitako artikulu osoa eta *Hizkunea* Soziolinguistikako Agerkariko aurreko artikuluak eta, argitalpen eta azterlanei buruzko berriak [www.euskara.euskadi.net/berripapera](http://www.euskara.euskadi.net/berripapera) web gunean irakur ditzakezue.



### *El plurilingüismo en España*

Turell, M. Teresa  
(arg.)



### *Hizkuntza, komunikazioaren eta teknologiaren garaian*

Arrieta Sagarna, M.  
Jose (koord.)



### *Working Together for Endangered Languages: Research Challenges and Social Impact*

Khemplani David, M.,  
Ostler, N., Dealwis, C.

## *Euskara mintzagai* bilduman Euskal Herriko prentsa eta euskalkiak aztergai



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, Labayru Ikastegia eta Udako Euskal Unibertsitatearekin lanikidetzan, 2007an abian jarri zuen *Euskara mintzagai* bilduma, gure hizkuntza, gure herria eta geure burua hobeto ezagutzeko asmoz. Bilduma honen bidez euskararen sustrai, enbor, adar eta fruituak aztertu eta modu erraz eta atseginean eskaini nahi zaie euskaltzale guztiei.

Oraingoan, bilduman bi ikerlan hauek argitaratu dira: *Euskal Herriko prentsa XVIII. mendetik 1945era* eta *Euskara eta euskalkiak*.

Lehena Udako Euskal Unibertsitateak prestatu du. Bertan, Maria González Gorosarri ikerlariak

euskarazko prentsaren ibilbide luze eta ezezagunaren nondik norakoen berri ematen digu. Lana osatzeko gehigarri bat lotu zaio liburuari; separata horrek ikertutako garaiko prentsa bere horretan ezagutzeko aukera ematen du, aldiari aldiari berriak tokian tokiko euskararen kontatuak. Era berean, horma-irudi bat ere badago argitalpen esanguratsuenen goiburuekin.

Bigarrena, berriz, Labayru Ikastegiaren eskutik dator, eta euskara eta euskalkiak aztergai ditu. Bertan, Adolfo Arejita eta Igone Etxebarria ikerlariak, batetik, erregistroak, aldaerak, eredu bateratua jorratzen dituzte; bestetik, euskalkien eremu geografikoaren nondik norakoak lantzen dituzte; hirugarrenik, euskara bateratzearen mendeetan zehar izandako saiakeren berri ematen dute; eta, azkenik, euskalkiek euskara literarioan izan duten eragina hausnarketa-gai dute. Edukia osatzeko alderi, Louis-Lucien Bonaparte printzeak 1863an sortutako euskalkien maparen erreproduktzioa zabaldu da liburuxkarekin batera.

Ohi bezala, [www.euskara.euskadi.net](http://www.euskara.euskadi.net) helbidetan izango dira pdfak eta bertsio elektronikoak erabilgai, lanak argitaratu ahala ●

# laburrak



## AnHitz, euskaraz hitz egiten duen zientzia-aditu birtuala



Elhuyar

Informazioaren eta Jakintzaren Gizarteak Euskadin duen erronkarik handienetako bat da pertsonak eta gailuak elkarrekin komunikatzeko behar diren euskarazko hizkuntza-teknologiak ikertzea eta garatzea. Erronka hori gogoan, euskaraz hitz egiten duen zientzia-aditu birtual interaktiboa, AnHitz deiturikoa, sortu dute Vicomtech-IK4 eta Tecnalía-Infotech zentro teknologikoei, Elhuyar Fundazioak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Ixa eta Aholab taldeek osatutako partzuergoak 2006 eta 2008 urte bitartean garatutako ikerketa-proiektuaren barruan.

Aplikazioan giza itxura duen hiru dimentsiotako avatarrekin ahozko elkarriketa bat izan dezakegu. Zientziaren inguruko galdera bat egitean erantzun zuzenena emateaz gain, bere datu basean aurkitutako beste erantzun posible guztiak erakusten dizkigu. Horrez gain, kontsulta horrekin zerikusia duten gaztelaniazko eta ingelesezko dokumentuak bilatu eta euskarara itzuliko ditu. Hiztegi funtzioa ere betetzen du, hitz baten esanahia azal baitezake.

AnHitz proiektuari esker, zazpi baliabide, hamahiru tresna eta zazpi aplikazio garatu edo hobetu dira euskararen alorrean, euskararen eremuko zenbait erreminta lehenbiziko aldiz aplikazio bakar batean bilduz.

Eusko Jaurlaritzako Industria eta Kultura sailek diruz lagundu dute proiektua. Guztira, 760.00 euro bideratu dute horretarako, horietako 570.000 euro (% 75) Kultura Sailak jarri duelarik ●

## Kirola euskaraz puntako kirol-taldeenkin

Abenduan kirola eta euskara bateratzen dituen *Kirol-campusak euskaraz* egitasmoaren hirugarren edizioa izan zen. Punta-puntako kirolaren ordezkari diren Bidasoa Kirol Elkartea, Baskonia fundazioa eta Euskadi fundazioarekin batera, ehunka gaztetxok eskubaloian, saskibaloian eta txirindularitzan aritzeko aukera izan zuten, Irunen, Gasteizen eta Derion hurrenez hurren. Egitasmo honen helburu nagusia da gazteen artean kirolaren bitartez euskaraz gozatzeko giroa sortzea. Ekimen horrek Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren laguntza izan du ●



## Euskara Expolangues azokan



Aurten ere euskara Parisko Expolangues hizkuntza-azokan izan da, Eusko Jaurlaritzak jarri duen erakustokiaren bidez, euskara munduan zehar ezagutzera emateko xedez. Aurtengo edizioan euskarak parte hartzeak garrantzi berezia izan du, Europar Batasuna eta Europako eleaniztasuna izan baitira azokako gonbidatu nagusiak. Horrez gain, aurtengo edizioa, Hizkuntzen Nazioarteko Urtearen baitan kokatu da.

Azokaren parte hartzearekin lotuta, Parisen *Euskara Munduan* programa aurrera eramateko asmoz, Patxi Baztarrikak HPSko sailburuordeak eta Joseba Erkizia HABEko zuzendariak Parisko Euskal Etxeko presidentea den Hervé Trinket-ekin hitzarmena sinatu dute. Horri esker, HABEk (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) diru-laguntza, ikasmaterialak eta aholkularitza eskainiko dizkio Parisko Euskal Etxeari urteko programa aurrera eramateko. Egun, 100 ikasle inguru ari dira Parisen euskara ikasten ●

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaren kontaktu-fitxategian sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saila / Zerbitzu Zuzendaritza / Donostia kalea 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz.

*Euskararen Berripapera* zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:  
Eusko Jaurlaritza / Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)  
Tel.: 945 01 81 16 • [berripapera@ej-gv.es](mailto:berripapera@ej-gv.es)

Legezko gordailua: VI-572-1992  
ISSN: 1138-3038

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

**EUSKO JAURLARITZA**  **GOBIERNO VASCO**  
KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística



DK-000023  
100gr.ko Cycclus Print  
paper birziklatuan  
inprimatua